

ARREN EZ BEDI GALDU EUSKERA



Gure euskera eder maitea
 Galtzen gaur degu ikusten
 Euskaldun onak arritzeko da
 Nola ez diran lotzatzen!
 Larramendirik, Astarloarik
 Geiago ez da aitazen...
 Ez da utsegin aundiagorik
 Ondo badegu pentsatzen

Galdu dirade oitura onak
 Galduko degu Euskera..
 Onla bagoaz eun urte barru
 ¡Galdu da gure izena!
 Erro, Aizkibel ziran bezela
 Erakuslerik gaur ez da
 Gure Euskera... ¡ay! galtzen bada
 Gu... Euskaldunak ez gera!

Nola isildu, eta barkatu
 Etorkezunen kondairak
 Arrazoiakin esango digu
 ¿Nun dira zuen oituerak?
 Damu dute bai... gaur Euskaldunak
 Lotsa piska bat dutenak

Aspaldi esan duten bezela
Gizonik jakinsuenak.

Dala Parisen, eta Londresen
Jakinsu asko badira
Euskarazko liburu zarren
Ondoren ibiltzen dira:
Or da Luziano prinzipe ernaya
Orain gure tar deguna,
Euskara zale bilañakoa
Jakinsuetan aundi dana.

Arren... ez bada galdu euskera
¡Nere anaya maiteak!
Galtzen badegu.. galduak gera
Gu, eta gure semeak:
Beti euskera itz egin bada
Oro zar eta gazteak,
Esan ez dedin danok gerala
Euskaldun biotz gabeak.

JOSÉ MARÍA DE IPARRAGUIRRE.

